

15/2015 FORU DEKRETUA, ekainaren 2koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasuna dutenentzako arreta zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoaren araubidea arautzekoa.

(2015eko ekainaren 22ko GAO)

(*Ondorengo Foru Dekretuekin lotuta: 87/2015 Foru Dekretua, abenduaren 15ekoa, gehieneko ekarpenak onartzekoa, 2015eko ekainaren 2ko 15/2015 Foru Dekretuak ezarritako zerbitzuetan (2015eko abenduaren 28ko GAO), 29/2016 Foru Dekretua, abenduaren 20koa, 15/2015 Foru Dekretuan aurreikusitako zerbitzuen erabiltzaileen gehieneko ekarpen ekonomikoak onartzekoa (2016ko abenduaren 29ko GAO) eta 26/2017 Foru Dekretua, abenduaren 19koa, zerbitzuen erabiltzaileen gehieneko ekarpen ekonomikoak onartzen dituena eta aldatzen duena ekainaren 2ko 15/2015 Foru Dekretua (2017ko abenduaren 29ko GAO)).

OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Araua osoa eta eguneratua jasotzen da bertan.

Foru dekretu honen xedea da mendekotasuna dutenentzako foru eskumeneko arreta zentroen erabiltzaileen partaidetza ekonomikoa arautzea, Eusko Legebiltzarraren 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legean, Gizarte Zerbitzuei buruzkoan, ezarritako printzipioak zehaztuz eta arau bakarrean bateratuz orain arte modu ez-sistematikoan eman izan den araudia. 12/2008 Legeak IV. Tituluan arautzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren finantzaketa eredua, eta finantzaketa iturrien artean aurreikusten du erabiltzaileen parte hartze ekonomikoa. Legean bertan eta Legea garatzen duten xedapenetan ezarritako irizpide orokorren arabera erabakiko da partaidetza hori.

Lehenik, Legeak ezartzen du 21. eta 22. artikuluetan zehaztutako katalogoan sartutako zerbitzuak doakoak izan ahal izango direla edo dagokien prezio publikoa edo tasa ordaindu behar izango dutela, eta kasu bietan, zerbitzu horiek eskuratzeko baldintzak espezifikoki ezarri eta arautuko direla. Edonola ere, zerbitzuak eskuratzeko aukera bermatuta geratzen da kasu bakoitzean bete beharreko baldintzak betetzen dituzten guztientzat, eta inor ere ez da kanpoan utziko arrazoi ekonomikengatik.

Erabiltzaileek inola ere ez dute parte hartuko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Karteran doako gisa arautzen diren zerbitzu eta prestazioen finantzaketan, marko horretan ematen den zerbitzuaren izaera edozein izanda ere, eta era berean ez dute parte hartuko 45.3 eta 46.4 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera ezar litezkeen zerbitzu eta prestazio katalogo eta/edo kartera bateratuetan doako gisa arautzen diren zerbitzuen finantzaketan ere.

Bigarrenik, doako gisa definitu ez diren prestazio eta zerbitzuen finantzaketan erabiltzaileek parte hartuko dute horretarako ezartzen diren prezio publiko edo tasen bidez. Edozein kasutan, ekarpen ekonomikoa erabakitzeko garaian kontuan izango da:

- a) Prestazioaren eta zerbitzuaren mota eta kostua.
- b) Erabiltzaileek izango dituzten erabilera-gradu posibleak.

Hirugarrenik, eta prezio publikoa ordaintzeko erabiltzaileek izango duten partaidetza erabakitzeko, Legeak ezartzen du neurtuko direla erabiltzailearen baliabide ekonomikoak, Erregelamenduz zehazten denaren arabera, eta progresibotasun irizpideen arabera baloratuta. Nolanahi ere, baloraziotik kanpo geldituko da ohiko bizileku duen etxebizitza edo bizitegia, salbu eta balio aparta duen etxebizitza denean.

Laugarrenik, zerbitzua ordaintzera behartuta dagoenak frogatzen baldin badu ez duela nahikoa baliabide ekonomiko dagokion prezio publikoa edo tasa ordaintzeko, salbuespenen edo hobarien onura aplikatuko zaio.

Bosgarrenik, erabiltzaileek beti bermatuta edukiko dute erabilera libreko gutxieneko kopuru bat. Baldin eta erabiltzailearen baliabide ekonomikak kopuru horren berdina edo txikiagoak badira, prestazioa doakoa izango da.

Eta seigarrenik, adinekoentzako egoitza zerbitzuen kasuan, baldin eta zerbitzuaren erabiltzaileak kasuan kasuko prezio publikoak edo tasak ordaintzeko nahikoa diru sarrerarik ez, baina gastu horiei erantzuteko erabil daitezkeen ondareen bat badu, Legeak ezartzen du finantzaketa formula alternatiboak adostu ahal izango direla administrazio publiko eskudunaren eta erabiltzailearen artean.

Oinarrizko irizpide horiek aplikatzeaz gain, mendekotasuna dutenentzako arreta zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoa ezarri behar denerako, foru erregulazioa argitu eta bateratu nahi du Dekretu honek. Izan ere, hainbat erregulazio daude era horretako zentroentzako, garai desberdinetan eta zerbitzu espezifikoentzat emandakoak, sakabanatzea eta koherentziarik eza ekar lezaketenak, eta aldi berean badira hitzarmen formulen bidez ematen diren beste zerbitzu batzuk ere eta horien erregulazioa entitate kudeatzaileen esku dago.

Gipuzkoako Lurralde Historikoan bigarren mailako arreta sareko baliabideen erabiltzaile izateko baldintzak eta egin beharreko ekarpen ekonomikoa honako arau hauetan oinarrituta da:

a) Mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako egoitza zerbitzuetan eta eguneko zentroetan, arau hauek aplikatuz:

— apirilaren 30eko 20/2002 Foru Dekretua, Gipuzkoako adineko pertsona ezinduentzako lekuak eskatu eta emateko arauak ematen dituena.

— abenduaren 30eko 801/2002 Foru Agindua, 20/2002 Foru Dekretuan garatzen diren irizpideak eta prozedurak onartzen dituena, eta ondoren egindako akats zuzenketak.

— urriaren 10eko 43/2006 Foru Dekretua, apirilaren 30eko 20/2002 Foru Dekretua aldatzen duena.

— apirilaren 29ko 29/2008 Foru Dekretuko, egoitza arretako eta eguneko arretako zerbitzuen onuradunek aste bukaeretan eta jaiegunetan egin beharreko ekarpenak arautzen ditueneko, 3. artikulua.

b) Desgaitasuna dutenentzako egoitza zerbitzuetan eta eguneko zentroetan:

— urtarrilaren 30eko 4/1996 Foru Dekretua, Uliazpi Fundazioa Erakunde Autonomoko asistentzia-zentroen prezio publikoak ezartzen dituena.

— ekainaren 3ko 41/1997 Foru Dekretua, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintzak dituen minusbaliatuen egoitzetako prezio publikoak onartzen dituena.

— ekainaren 15eko 56/1999 Foru Dekretua, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintza Departamentuaren adineko pertsonentzako zentroetako prezio publikoak ezartzekoa.

c) Baliabide soziosanitarioetan (osasun mentaleko zerbitzuak barne):

— ekainaren 15eko 56/1999 Foru Dekretua, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintza Departamentuaren adineko pertsonentzako zentroetako prezio publikoak ezartzekoa.

— urriaren 26ko 30/2010 Foru Dekretua, baliabide sozio-sanitarioen sareko zerbitzuen erabiltzaileen diru ekarpenak arautzen dituen.

d) Bestalde, urtero eguneratu dira, foru aginduen bidez, erabiltzaile bakoitzak egun bakoitzeko gehienez egin beharko dituen ekarpenak adinekoen egoitza zerbitzuak eta eguneko zentroak erabiltzeagatik eta, halaber, baliabide soziosanitarioak erabiltzeagatik.

Hori horrela izanik, foru araudi hori aplikatu den denboran hainbat desadostasun eta bat ez etortze hauteman dira, eta komeni da horiek konpontzea. Beharrezkotzat jotzen da, beraz, irizpide bateratu batzuk ezartzea mendekotasun egoeran daudenentzako arreta zentroen erabiltzaileen ahalmen ekonomikoa zehazteko, gizarte zerbitzuei buruzko Legeak ezarritako irizpide komunak betez betiere.

Alde horretatik, testu berri bat egitea erabaki da, aurreko testuetako artikulua puntualetan aldaketak egiten jardun beharrean, funtzionamendua erraztuko duen eta aplikatzeko gardena izango den testu bakar bat izate aldera.

Horiek horrela, Gizarte Politikako Departamentuko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluan gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea.

Foru dekretu honen xedea da Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasuna dutenentzako foru eskumeneko arreta zentroen kostuan ordaintzera behartutako pertsonak izango duten partaidetza ekonomikoaren araubidea zehaztea, eta bereziki arautzea:

- a) Erabiltzaileen ahalmen ekonomikoa erabakitzeko irizpideak.
- b) Ahalmen ekonomikoaren arabera aplikatu ahal izango diren hobariak.
- c) Erabiltzaileei bermatuko zaizkien erabilera libreko gutxieneko kopuruak.
- d) Sortzapena, ordainketa eta ordainketaren zati bat geroratzea arautzeko irizpideak.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

Foru dekretu hau aplikatuko zaie Gipuzkoako Foru Aldundiak, dela zuzenean kudeatuz, dela entitate pribatuekin hitzarmenak edo kontratuak sinatuz, ematen dituen eta jarraian zerrendatzen diren zerbitzu hauei:

a) Bizitoki iraunkorra edo aldi baterakoa emateko zerbitzuak:

— Mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako egoitza zentroak.

— Desgaitasuna dutenentzako egoitza zentroak.

— Buruko gaixotasuna dutenentzako egoitza zentroak.

— Egoitza unitate soziosanitarioak.

b) Eguneko arreta zerbitzuak:

— Mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako eguneko arreta zentroak.

— Desgaitasuna dutenentzako eguneko arreta zentroak.

— Buruko gaixotasuna dutenentzako errehabilitazio psikosozialeko zentroak.

3. artikulua. Gehieneko ekarpenak zehaztea.

1. 2. artikuluan zehaztutako zerbitzuen gehieneko ekarpenak foru dekretu baten bidez onartuko dira, Gizarte Politikako Departamentuak proposatuta.

2. Baliabide ekonomikorik ez izateagatik inor ere ez da geldituko foru dekretu honetan ekarpenak finkatzen zaizkien gizarte zerbitzuen estalduratik kanpora.

II. TITULUA

ERABILTZAILEAREN PARTAIDETZA EKONOMIKOA ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK

I. KAPITULUA. -EKARPEN EKONOMIKO OSOAK, SALBUESPENAK,
HOBARIAK ETA ERABILERA LIBREKO KOPURUAK

4. artikulua. Gehieneko ekarpena osorik ordaintzea.

1. Zerbitzua ordaintzera behartutako pertsonak osorik ordaindu beharko dute dagokien gehieneko ekarpena, horretarako ahalmen ekonomikoa baldin badute, horregatik eragotzi gabe ekarpen horren ordainketa segurtatzeko behar diren garantiak formalizatzea exijitu ahal izatea, foru dekretu honetako III. tituluaren aurreikusitako moduan.

2. Aurrekoari dagokionez, ulertuk da erabiltzaileak ahalmen ekonomikoa duela baldin eta foru dekretu honen II. tituluko III. kapituluaren aurreikusitakoari jarraikiz egin beharreko ekarpena berdina edo handiagoa bada onartutako gehieneko ekarpena baino, zerbitzu motaren arabera.

3. Orobat, osoki ordainduko dute ekarpen maximoa beharrezko egiaztagiri ekonomikoak ekartzen ez dituzten pertsonak edo Gizarte Politikako Departamentuari baimena ematen ez dietenak eskariko datu ekonomikoak egiaztatzeke Ogasun eta Finantza Departamentuan dauden zerga datuekin edo beste herri administrazio batzuek izan ditzaketan datuekin edo txostenekin. Kasu horietan, ezin izango da bermatu disposizio libreko zenbateko minimoa, foru dekretu honen 8. artikuluan ezartzen dena.

5. artikulua. Ahalmen ekonomikorik ezagatiko salbuespena.

Zerbitzuen erabiltzaileek ez dute dagokien ekarpena ordaindu beharko, beren ahalmen ekonomikoa, urte osoa kontatuta, foru dekretu honetan ezarritako erabilera libreko kopurua baino txikiagoa bada.

6. artikulua. Erabiltzailea kanpoan dagoenean, salbuespen erregimena.

1. Izaera iraunkorreko erabiltzaileak salbuetsita egongo dira ausentzia aldiatarako ezarritako ekarpenaren % 25 ordaintzetik. Aldi horiek jasota daude mendekotasun egoeran dauden pertsonen egoitza zerbitzuak eta eguneko zentroen zerbitzuak jasotzeko erregimena arautzen duen 2015eko martxoaren 24ko 7/2015 Foru Dekretuaren 32. artikuluan.

2. Aldi baterako egoitza zerbitzuen erabiltzaileek esleitu zaien ekarpenaren %100 ordainduko dute kanpoan diren bitartean, plaza erreserbatuta geratzen bada erabiltzaileak uko egin ez diolako.

7. artikulua. Hobariak.

1. Erabiltzaileek gehienezko ekarpena ordaintzeko ahalmen ekonomiko nahikoa ez dutenean, dagokien ekarpenetan hobariak jaso ditzakete.

2. Ekarpenera aplikatuko zaizkion hobariak progresibotasun printzipioari jarraituz erabakiko dira, erabiltzailearen ahalmen ekonomikoaren arabera.

3. Hobaridun ekarpenak zehazteko, titulu honetako III. kapituluan zerbitzu mota bakoitzerako finkatutako formulak aplikatuko dira, 8. artikuluan ezarritakoaren arabera zerbitzu horretarako erabilera libreko kopuruak errespetatu ondoren.

8. artikulua. Erabilera libreko kopuruak.

1. Erabiltzaileek ordaindu beharreko ekarpenak zehazteko garaian, zerbitzua eskatu duenak Gizarte Politikako Departamentuari baimena ematen badio aurkeztu dituen datu ekonomikoak egiaztatzeko, foru dekretu honetako I. eranskinean zerbitzu bakoitzaren erabiltzaileen erabilera liberako ezartzen diren gutxieneko kopuruak errespetatuko dira.

2. Erabiltzailearen ekarpena erabakitzeko, foru dekretu honetako II tituluaren III. kapituluan jasotako formulak aplikatu ondoren ateratzen den zenbatekoa murriztu egingo da, behar izanez gero, erabilera libreko gutxieneko kopurua garantizatu ahal izateko behar den mailaraino.

3. Hala ere, ahalmen ekonomikoa zehazteko garaian ondarea kontuan hartzen ez den zerbitzuak direnean, 2. apartatuan aipatutako formulak aplikatuta ateratzen den ekarpena txikiagoa baldin bada Diru sarrerak Bermatzeko Errentaren onuradunek ordaindu behar dutena baino eta elkarbultzako unitateak ondare bat baldin badu Diru sarrerak Bermatzeko Errenta (2008ko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoak, arautua) eskuratzeko ezarritako muga baino balio handiagokoa eta arrazoi horregatik bakarrik ez du prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea, ekarpen ekonomikoa aipatutako prestazioaren onuradunei aplikatzen zaienaren berdina izango da.

II. KAPITULUA. AHALMEN EKONOMIKOAREN BALORAZIOA

9. artikulua. Ahalmen ekonomikoren osagaiak.

Erabiltzailearen ahalmen ekonomiko indibiduala baloratzeko, zerbitzu mota bakoitzaren arabera, kontuan izango da edo elkarbultzako unitatearen errenta edo errenta eta ondarea, urte osoa kontatuta, eta kapitulu honetako hurrengo artikuluetan ezarritako balorazio-irizpideak aplikatuta.

10. artikulua. Ahalmen ekonomiko, errenta eta ondare indibidualak.

1. Zerbitzuaren erabiltzailearen ahalmen ekonomiko indibiduala kalkulatzeko, elkarbultzako unitate osoaren ahalmen ekonomikoa zatituko da unitateko kideen kopuruarekin.

2. Zerbitzuaren erabiltzailearen errenta indibiduala izango da elkarbultzako unitate osoaren urteko errenta unitateko kideen kopuruarekin zatituta ateratzen dena.

3. Zerbitzuaren erabiltzailearen ondare indibiduala izango da elkarbultzako unitate osoaren ondarea unitateko kideen kopuruarekin zatituta ateratzen dena.

11. artikulua. Elkarbultzako unitatea.

1. Erabiltzaileak egin beharreko ekarpen ekonomikoa kalkulatu aurretik, elkarbultzako unitatearen ahalmen ekonomikoa zehaztuko da. Horretarako, honela osatuko da elkarbultzako unitatea:

a) Adinekoak direnean, elkarbultzako unitatea osatzen dute eskaera egiten duenak eta haren:

— Ezkontideak edo 2003ko maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikotekideak.

— Etxean bizi diren 30 urtetik beherako seme-alabek, ekonomikoki mendekoak badira.

— 30 urte edo gehiagoko seme-alabek, judizialki ezgaituta daudenean edo %65eko desgaitasuna edo handiagoa aitortu zaienean, eskatzailearekin batera bizi badira eta ekonomikoki mendekoak badira.

b) Adingabeak direnean, elkarbizitzako unitatea osatuko dute adingabeak berak eta adingabearen zaintza eta jagoletza dituen gurasoak edo gurasoek. Elkarbizitzako unitatea osatuko dute, halaber, 30 urtetik beherako anai-arrebek eta baita adin horretakoek edo zaharragoek ere, judizialki ezgaituta badaude edo %65eko desgaitasuna edo handiagoa aitortu bazaie eta, kasu bietan, elkarbizitzako unitatea osatzen duen gurasoarekin edo gurasoekin bizi badira eta ekonomikoki mendekoak badira.

21. Ulertuko da seme-alabak edo anai-arrebak ekonomikoki mendekoak direla, dituzten diru sarrerak ondorio askotariko errentaren adierazle publikoaren %93 baino txikiagoak badira.»

3. Ezkontideak edo bikotekideak elkarrekin bizi direla ulertuko da banantze epairik ez badago edo izatezko bikotea desegin dela ziurtatzen ez bada.

12. artikulua. Errenta.

1. Elkarbizitzako unitatearen ahalmen ekonomikoa kalkulatzeko, errenta edo sarrera konputagarriak izango dira elkarbizitzako unitateak lanaren eta kapitalen ondorioz urtero lortzen dituen etekinak eta eskubideak eta beste bide batzuetatik lor ditzakeen guztiak; zehazki:

a) Funts publiko nahiz pribatuen kargura jasotzen diren pentsioak eta prestazio ekonomikoak. Jasotzen diren sarrera garbiak konputatuko dira. Hor sartuko dira elkarbizitza unitateko edozein kide subjektu kausatzaile duten pentsio, subsidio, prestazio ekonomiko nahiz bestelako eskubide ekonomiko guztiak.

¹ 11. artikuluko 2. apartatua, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, arau honek aldatu du: 2017ko urtarrilaren 24ko 2/2017 Foru Dekretua, aldatzen duena 2015eko ekainaren 2ko 15/2015 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasuna dutenentzako arreta zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoaren araubidea arautzekoa (2017ko otsailaren 7ko GAO).

b) Norberaren nahiz inoren konturako lanetik lortutako etekinak. Jasotzen diren sarrera garbiak konputatuko dira.

c) Kapital higigarri nahiz higiezinaren etekin garbiak.

d) Sariak eta aparteko sarrerak. Aparteko sarreratzat hartuko dira jaraunspenak eta legatuak, dohaintzak, ondarea saltzean sortutako baliabideak eta aurreko apartatueta aipatu ez diren bestelako sarrera guztiak, erregulariki jasotzen ez badira eta salbuespen gisa lortu badira. Sarrera horiek, ondare gisa baloratu ez badira, sortzapenaren ondorengo 5 urteetan konputatuko dira, eta urte horietako bakoitzean konputatuko da sariaren edo aparteko sarreraren zenbateko garbia bostekin zatituta ateratzen den kopurua.

e) Borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetako edo antzeko prebizio planetako edo aseguru kolektiboko kontratuetako edo bestelako aseguru kontratuetako eduki ekonomikoko eskubideengatik urtean lortutako sarrerak, eskubide horiek ez baldin badira ondare gisa baloratu.

2. Epai judizialaren bidez ezarritako mantenu pentsioak edo pentsio osagarriak ordaintzeko benetan jarritako kopuruak deskontatu egingo dira sarreraren baturatik.

3. Oro har, errenta zenbatzeko ekitaldia zerbitzua eskatu eta aurreko urteko ekitaldia izango da. Hala ere, kasu hauetan zerbitzua eskatu den ekitaldia izango da errenta kalkulatzeko ekitaldi: a) letrako sarrerak eta b) letrako besteren konturako lan etekinak.

4. Artikulu honen 1. apartatuko a) letraren ondorioetarako, sarrera garbia izango da sarrera gordinak ken Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren gastu kengarriak eta atxikipenak.

5. Artikulu honen 1. apartatuko b) letraren ondorioetara, norberaren kontuko lan etekin garbiak aplikaziokoa den zerga araudiak ezartzen duen prozeduraren bidez zehazten dira jarduera enpresarial edo profesionalen etekinak zehazteko, kontuan hartuta norberaren kontuko etekinak eta eskaeraren aurreko urteko zerga aitortpeneko oinarri ezargarria berdina izango direla, salbu eta:

a') Zerga aitortpena eduki ezean, zinpeko aitortpen bat aurkeztuko da, aurreko ekitaldiko etekin garbiei buruzkoa.

b') Zerbitzua eskaera gauzatzen hasita hasten denean norberaren kontuko jarduketa edo pertsona erabiltzaile denean, jarduketaren hiru hilabetera zinpeko aitortpen bat egingo da azken hiru hilabetei dagozkien hileko batz besteko errendimendu garbiekin.

a') eta b') kasuetan, zerga aitopenaren ondoren eta ondorioz, Gizarte Politikako Departamentuak dagokion erregularizazioa burutu du, behar izanez gero.

c') Ez da errendimendurik konputatuko elkarbizitza unitateko kideak baja ematen badu jarduketan.

Ondorio beretako, besteren konturako lanen sarrera garbiak izango dira sarrera gordinak ken gizarte segurantzaren kotizazioen gastuak eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren atxikipenak.

6. Artikulu honen 1. apartatuko c) eta e) letren ondorioetarako errendimendu edo sarrera garbiak izango dira errendimendu eta sarrera gordinak ken gastu kengarriak eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kontuko ordainketak. Ez dira deskontatuko, berriz, mesedeko izan dituzten Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga beraren hobariak.

13. artikulua. Errenta salbuetsiak.

1. Elkarbizitzako unitatearen ahalmen ekonomikoa kalkulatzeko, errenta salbuetsizat joko dira erabiltzailearen nahiz elkarbizitza unitateko edozein kideren errenta hauek:

a) Norberaren kargurako 18 urtetik beherako seme-alabengatik ematen diren prestazio ekonomikoak.

b) Hezkuntza edo prestakuntzarako bekak.

c) Jantokiko eta garraioko bekak.

d) Laguntzako produktuak eta ingurune fisikora egokitzekoak eskuratzeko emandako diru laguntza publikoak.

e) Ohiko etxebizitza eskuratzeko edo errehabilitatzeko emandako laguntzak.

f) Desgaitasuna dutenentzako mugikortasunerako eta garraio gastuetarako subsidioa.

g) Gizarte larrialdiko laguntzak eta etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriak, 2008ko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoak, arautuak.

h) Arrisku egoeran dauden pertsonak gizartean integratzeko ematen diren helburu jakineko laguntzak.

- i) Babesgabezia dauden adingabeak harreran hartzeko laguntzak.
- j) 2006ko azaroaren 14ko 39/2006 Legean, Mendekotasun Egoeran bizi diren Pertsonen Laguntzeko eta Arreta ematekoan, jasotako prestazio ekonomikoak.
- k) Genero indarkeriaren biktima diren pertsonentzako prestazio ekonomikoak.
- l) Zentro okupazional batera joateagatik lortutako ordainsariak.
- ll) Ohiko etxebizitzaren gaineko alderantzizko hipotekengatik lortutako kuotak.
- m) Baliaezintasun handiaren osagarria, beste pertsona baten premiagatik ematen den baliaezintasuneko kotizatu gabeko pentsioaren osagarria, norberaren kargu dagoen eta %75eko desgaitasuna edo handiagoa duen 18 urtetik gorako seme edo alabarengatik jasotzen den diru kopurua eta Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bateginak (2013ko azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak onartuak) aurreikusitako hirugarren pertsona bati laguntzeko sorospena, pentsio edo prestazio horien kausatzailea zerbitzuaren erabiltzailea ez denean.
- n) Helburu jakineko bestelako gizarte prestazioak, horrelakorik dagoenean.

2. Foru dekretu honen xede diren bizitoki zerbitzuen erabiltzaileen ohiko etxebizitza errentan emateagatik lortzen diren kapital higiezinaren etekin garbien %40 ere salbuetsita geratuko da.

14. artikulua. Lan etekinei buruzko salbuespena.

Norberaren edo inoren konturako lanetik etorritako sarreren konputuan, sarrera horien %40 salbuetsiko da.

15. artikulua. Ondarea.

1. Elkarbizitzako unitatearen ahalmen ekonomikoa kalkulatzeko, ondareztat hartuko da:

a) Zerbitzua eskatzen den egunean osorik edo zati batean elkarbizitza unitateko kideen titularitatekoak diren ondasun higigarri nahiz higiezin eta eduki ekonomikoko eskubideen multzoa.

b) Zerbitzua eskatzen den egunaren aurreko bost urteen barruan, elkarbizitza unitateko kideren batek dohainik eskualdatu dituen ondasun eta eskubideen balioa.

2. Konputuan sartutako ondasunen gaineko kargak eta zamak, ondasun horiek eskuratu edo errehabilitatu ahal izateko hartutako konpromisoen ondoriozkoak direnean, deskontatu egingo dira ondasunen balio garbia kalkulatzeko. Era berean, elkarbizitza unitatearen obligazioei aurre egiteko notario aurrean edo banku entitateen aurrean eraturako konpromisoak eta zor pertsonalak deskontatu egingo dira elkarbizitza unitatearen ondare balioetatik.

3. Hurrengo artikuluan ezarritakoaren arabera ohiko bizilekua izan den etxebizitza ondare salbuetsia denez, etxebizitza horren gaineko kargak eta zamak ere ez dira kenduko elkarbizitza unitatearen ondaretik.

4. Ondarearen balioespena 2012ko abenduaren 18ko 10/2012 Foru Arauak, Aberastasunaren eta Fortuna Handien Gaineko Zergarenak, ezarritako irizpideen arabera izango da; bestela, ondareari buruzko zergak arautzen duen araudiaren arabera.

16. artikulua. Ondare salbuetsia.

Elkarbizitzako unitatearen ahalmen ekonomikoa kalkulatzeko, ondare salbuetsizat hartuko da:

a) Ohiko etxebizitza, balio aparta duenean izan ezik. Balio aparta duela ulertuko da etxebizitzaren balio katastrala handiagoa denean Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuaren 2006ko maiatzaren 15eko Aginduak, prestazio ekonomikoak emateko gehieneko balio katastralak ezartzen dituenak, edo agindu hori ordeztzen duen araudiak, finkatutako balioak baino, zerbitzuen koordainketarako beste gehieneko baliorik ezartzen ez den bitartean; kasu horietan, ondare gisa konputatuko da balio katastrala gainditzen duen zatia, ezarritako mugak kontuan izanda.

a.1.) Alde horretatik, ohiko etxebizitzaren kontzeptuan sartuko dira, etxebizitzaz gain, garajea eta trastelekua, horrelakorik dagoenean, baldin eta etxebizitza dagoen eraikin berean edo inguruko batean baldin badaude. Ohiko etxebizitza landatarra denean, ohiko etxebizitzaren kontzeptuan sartuko da erantsitako partzela landatarra ere, desagregatuta ez badago.

a.2.) Ohiko etxebizitzat hartuko da bizitoki zerbitzuan sartu arte erabiltzailea bizi izan den etxebizitza. Alde horretatik, bizitoki zerbitzuan sartu aurretik erabiltzailea garai bateko bere ohiko bizilekua ez den beste etxe batean bizi izan bada, hori ere ohiko etxebizitzat hartuko da eta, beraz, ondare baloraziotik kanpo geratuko da, ondoko 3 baldintza hauek betetzen badira:

— Utzi duen etxebizitza bere ohiko etxebizitza izatea 3 urtean gutxienez.

— Etxebizitza batetik bestera aldatzeko arrazoa eskatzailearen mendekotasuna edo autonomiarik eza izatea.

— Etxebizitza berrian bere mendekotasunarentzako laguntzak izatea, hau da, beste norbaitekin bizi izatera joatea, edo etxe aldaketa barrera arkitektonikoak gainditzeko egitea.

b) azaroaren 18ko 41/2003 Legeak –Desgaitasuna dutenen ondarea babestekoak, eta xede horretarako Kode Zibila, Prozedura Zibilaren Legea eta Zerga Arautegia aldarazten dituenak– ezarritakoaren arabera bereziki babestutako ondare bati ekarritako ondasunak eta eskubideak, baldin eta ondare horren titularra ez bada zerbitzuan sartzen dena, eta zerbitzu horretan sartzeari behin betikoa bada, eta zerbitzu horrek pertsonaren premia bitalak estaltzeko parte hartzen duen neurrian, aipatutako Legeko 1.1. eta 5.4 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

17. artikulua. Dokumentazioa.

1. Zerbitzuak eskatzen dituztenek 7. artikuluan azaldutako hobariak lortu nahi dituztenean ekarpen ekonomikoetan, zerbitzua erabiltzeko eskaerarekin batera, aurreko ekitaldiko diru sarreraren eta ondarearen zinpeko aitorpena aurkeztu beharko dute. Era berean, ezagutzera emango dituzte, zerbitzua eskatzen den egunaren aurreko bost urtean barruan elkarbizitza unitateko kide ez direnei dohainik eskualdatutako ondasun eta eskubideak. Zinpeko aitorpenarekin batera, dokumentu hauek aurkeztuko dituzte, kasua denean:

a) Espainiar estatutik kanpo sortutako pentsioaren ziurtagiria edo pentsio horren abonua banku agiria.

b) Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpoan eduki ditzakeen ondasun higigarri nahiz higiezinaren ziurtagiria.

c) Seme-alaben aldeko mantenu pentsioa eta/edo ezkontide ohiaren aldeko konpentsazio pentsioa ezartzen dituen epaia eta, kasua bada, hitzarmen arauemailea.

d) Interesatuaren ahalmen ekonomikoa zehazteko organo kudeatzaileak beharrezkotzat jotzen dituen gainerako dokumentuak, horrelakorik bada.

2. Ahalmen ekonomikoari buruzko datuak faltsutzeak edo ezkutatzeak zerbitzu prestazioa behin betiko etetea ekarriko du.

III. KAPITULUA. -ZERBITZUEN ERABILTZAILEAREN EKARPENA ZEHAZTEA

I. ATALA. Elementu komunak

18. artikulua. Eskumena.

Foru dekretu honetan arautzen diren zerbitzuen erabiltzaileek egin beharko ekarpen ekonomikoaren likidazioa Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuari dagokio.

Erabiltzaileak finantzatzen ez duen zerbitzuko plazaren kostuaren zatia, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak finantzatuko du.

19. artikulua. Egun bakoitzeko aplikatuko den ekarpen ekonomikoa.

Erabiltzaileak ordaindu beharreko ekarpen ekonomikoa, hartutako edo erreserbatutako zerbitzu egun bakoitzeko zehaztuko da.

20. artikulua. Izaera iraunkorreko bi zerbitzu aldi berean gertatzea.

Egoitza zerbitzu iraunkor baten erabiltzaile bat aldi berean eguneko arreta zerbitzuen erabiltzaile denean, egoitza zerbitzuengatik egin beharko duen ekarpena kalkulatzeko, eguneko zerbitzuaren gastua deskontatu egingo da erabiltzailearen errenta indibidualetik.

II. ATALA. -Mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako egoitza zentroak

21. artikulua. Ahalmen ekonomikoa zehazteko osagaiak.

Mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako egoitza zerbitzuaren erabiltzailearen ahalmen ekonomikoa zehazteko, elkarbizitza unitatearen urteko errenta eta ondarea hartuko dira kontuan, urte osoa kontatuta, foru dekretu honetako II. tituluaren II. kapituluaren ezarritako balorazio irizpideak aplikatuta.

22. artikulua. Ekarpen ekonomikoa zehaztea.

1. Honela zehaztuko da erabiltzailearen ekarpena:

a)2 Erabiltzailearen banakako ondarearen balioa handiagoa bada urtebeteko ondorio askotariko errentaren adierazle publikoaren %62 baino, hasieran esleituko zaion ekarpena gehieneko ekarpenaren berdina izango da. Erabiltzaileak gehieneko ekarpena osorik zenbat denboran ordaindu beharko duen kalkulatzeko, formula hau aplikatuko da:

$$\text{(Ondare indibiduala - OAEAParen \%62)} / \text{Gehieneko ekarpena} = \text{gehieneko ekarpena ordaintzeko egunen kopurua.}$$

Azalpena:

— Ondare indibiduala: 10. artikuluan definitua.

— Gehieneko ekarpena: 3. artikuluan ezarria.

b) Aurreko a) apartatuan kalkulaturako denbora igarotakoan, erabiltzailearen ekarpen ekonomikoa zehaztuko da errenta indibidualaren arabera. Kalkulu honen emaitza izango da esleituko zaion ekarpen ekonomikoa:

$$\text{Errenta indibidualaren \%85} / 365 \text{ egun} = \text{erabiltzailearen ekarpena.}$$

Azalpena:

²²22. artikuluko 1. zenbakiko a) hizkia, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, arau honek aldatu du: 2017ko urtarrilaren 24ko 2/2017 Foru Dekretua, aldatzen duena 2015eko ekainaren 2ko 15/2015 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasuna dutenentzako arreta zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoaren araubidea arautzekoa (2017ko otsailaren 7ko GAO).

Errenta indibiduala: 10. artikuluan definitua.

2. Aurreko apartatuko b) puntuan emandako formula aplikatuta ateratzen den zenbatekoa murriztu egingo da, behar izanez gero, 8. artikuluan zehaztutako erabilera libreko kopuru minimoa garantizatzerara iritsi arte.

23. artikulua. Zerbitzuaren beraren salbuespenak.

Kontuan izanik ohiko etxebizitza ez diren ondasun higiezinak ondare gisa baloratuko direla, ondasun horiek errentan ematek lortzen diren kapital higiezinaren etekinak ez dira sartuko elkarbizitza unitatearen errenta kalkulatzeko. Arrazoi berarengatik, kapital higigarriaren etekinak ere salbuetsi egingo dira.

III. ATALA. -Desgaitasuna edo buruko gaixotasuna dutenentzako egoitza zentroak

24. artikulua. Ahalmen ekonomikoa zehazteko osagaiak.

Erabiltzailearen ahalmen ekonomikoa zehazteko kontuan hartuko da errenta, urte osoa kontatuta, titulu honetako II. kapituluan ezarritako balorazio irizpideak aplikatuta.

25. artikulua. Ekarpen ekonomikoa zehaztea.³

1. Honela zehaztuko da erabiltzailearen ekarpena:

Errenta indibidualaren %75/365 egun = erabiltzailearen ekarpena.

Azalpena:

Errenta indibiduala: 10. artikuluan xedatutakoa.

³ 25. artikulua, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, honako arau honek aldatu du: urtarrilaren 24ko 2/2017 Foru Dekretuak, aldatzen duenak 2015eko ekainaren 2ko 15/2015 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasuna dutenentzako arreta zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoen araubidea arautzekoa (2017ko otsailaren 7ko GAO).

2. Nolanahi ere, mantenua ez denean egoitza zerbitzuan sartzen, errenta indibidualaren %65 hartu beharko da kontuan».artikulo

IV. ATALA. -Mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako eguneko arreta zentroak

26. artikulua. Ahalmen ekonomikoa zehazteko osagaiak.

Erabiltzailearen ahalmen ekonomikoa zehazteko, errenta indibiduala hartuko da kontuan, II. tituluaren II. kapituluan definitutakoaren arabera.

27. artikulua. Ekarpen ekonomikoa zehaztea.⁴

Eguneko arreta zentroen erabiltzaileak egin beharreko ekarpena, formula hau aplikatuta ateratzen dena izango da:

Errenta indibidualaren %35 / 264 = erabiltzailearen ekarpena.

Azalpena:

Errenta indibiduala: 10. artikuluan definitua.

V. ATALA. -Desgaitasuna dutenentzako eguneko arreta zentroak eta buruko gaixotasuna dutenentzako errehabilitazio psikosozialeko zentroak

28. artikulua. Ahalmen ekonomikoa zehazteko osagaiak.

Erabiltzailearen ahalmen ekonomikoa zehazteko, errenta indibiduala hartuko da kontuan, II tituluaren II. kapituluan definitutakoaren arabera.

⁴ 27. artikulua, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, honako arau honek aldatu du: abenduaren 19ko 26/2017 Foru Dekretuak, zerbitzuen erabiltzaileen gehieneko ekarpen ekonomikoa onartzen dituenak eta aldatzen duenak ekainaren 2ko 15/2015 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasuna dutenentzako arreta zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoaren araubidea arautzekoa (2017ko abenduaren 29ko GAO).

29. artikulua. Ekarpen ekonomikoa zehaztea.⁵

Eguneko arretako zentroyen eta errehabilitazio psikosozialeko zentroyen erabiltzaileek egin beharreko ekarpena, formula hau aplikatuta ateratzen dena izango da:

Errenta indibidualaren %45 / 220 = erabiltzailearen ekarpena.

Azalpena:

Errenta indibiduala: 10. artikuluan definitua.

VI. ATALA. Egoitza unitate soziosanitarioak

30. artikulua. Ahalmen ekonomikoa zehazteko osagaiak.

Erabiltzailearen ahalmen ekonomikoa zehazteko, errenta indibiduala hartuko da kontuan, II. tituluaren II. kapituluaren definitutakoaren arabera.

31. artikulua. Ekarpen ekonomikoa zehaztea.

1. Egoitza unitate soziosanitarioko zerbitzuen erabiltzaileak egin beharreko ekarpena, formula hau aplikatuta ateratzen dena izango da:

Errenta indibidualaren %80 / 365 = erabiltzailearen ekarpena.

Azalpena:

Errenta indibiduala: 10. artikuluan definitua.

2. Aurreko apartatuan emandako formula aplikatuta ateratzen den zenbatekoa murriztu egingo da, behar izanez gero, 8. artikuluan zehaztutako erabilera libreko kopuru minimoa garantizatzerara iritsi arte.

⁵ 29. artikulua, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, honako arau honek aldatu du: abenduaren 19ko 26/2017 Foru Dekretuak, zerbitzuen erabiltzaileen gehieneko ekarpen ekonomikoa onartzen dituenak eta aldatzen duenak ekainaren 2ko 15/2015 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasuna dutenentzako arreta zentroyen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoaren araubidea arautzekoa (2017ko abenduaren 29ko GAO).

32. artikulua. Lehenengo 30 egunetako salbuespena.

Egoitza unitate soziosanitarioen erabiltzaileek ez dute ekarpen ekonomikorik ordaindu beharko egonaldiaren lehenengo 30 egunetan.

VII. ATALA. -Mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako egoitza zentroetan aldi baterako egonaldia egiteko zerbitzuak

33. artikulua. Ahalmen ekonomikoa zehazteko osagaiak.

Erabiltzailearen ahalmen ekonomikoa zehazteko, errenta indibiduala hartuko da kontuan, II. tituluaren II. kapituluaren definitutakoaren arabera.

34. artikulua. Ekarpen ekonomikoa zehaztea.

1. Mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako aldi baterako egonaldi zerbitzuaren erabiltzaileak egin beharreko ekarpena, formula hau aplikatuta ateratzen dena izango da:

Errenta indibidualaren %85 / 365 egun = erabiltzailearen ekarpena.

Azalpena:

Errenta indibiduala: 10. artikuluan definitua.

2. Desgaitasuna edo buruko gaixotasuna dutenentzako aldi baterako egonaldi zerbitzuaren erabiltzaileak egin beharreko ekarpena, formula hau aplikatuta ateratzen dena izango da:

Errenta indibidualaren %75 / 365 egun = erabiltzailearen ekarpena.

Azalpena:

Errenta indibiduala: 10. artikuluan definitua.

3. Aurreko apartatuetan emandako formuletatik bakoitzari dagokiona aplikatuta ateratzen den zenbatekoa murriztu egingo da, behar izanez gero, 8. artikuluan zehaztutako erabilera libreko kopuru minimoa garantizatzerara iritsi arte.

35. artikulua. Gehieneko ekarpenak.

Mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako eta desgaitasuna edo buruko gaixotasuna dutenentzako aldi baterako egonaldi zerbitzuetarako gehieneko ekarpenak, foru dekretu bidez onartuko diren mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako eta desgaitasuna edo buruko gaixotasuna dutenentzako egoitza zerbitzu iraunkorrerako ezarritako gehieneko ekarpenak izango dira, hurrenez hurren.

Adinekoentzako aldi baterako egonaldien zerbitzuko erabiltzaileari, baldin eta mendekotasun gradua balioetsita ez badu, BVDko III. eta II. graduko plaza bateko erabiltzailearen egoera emango zaio.

36. artikulua. Eguneko arreta zerbitzua eta egoitzako aldi baterako egonaldi zerbitzua aldi berean gertatzea.

Aldi baterako egonaldia eskatzen duena eguneko arreta zerbitzuaren erabiltzailea denean, aldi baterako egonaldirako ekarpen ekonomikoa kalkulatzeko, eguneko zentroko urteko ekarpena kenduko zaio banakako errentari.

37. artikulua. Intentsitate txiki edo ertaineko bizitoki iraunkorreko zerbitzua eta intentsitate handiko aldi baterako bizitoki zerbitzua aldi berean gertatzea.

Intentsitate txiki-ertaineko bizitoki iraunkorreko zerbitzu baten erabiltzaile batek intentsitate handiagoko bizitoki zerbitzu bat erabili behar duenean aldi baterako, egiten duen ekarpenaren %75arekin bizitoki iraunkorreko zerbitzua ordainduko du eta gainerako %25arekin aldi baterako egonaldi zerbitzua.

38. artikulua. Aldi baterako egonaldi zerbitzua eta udaleko etxez etxeko laguntza zerbitzua aldi berean ematea.

1. Etxez etxeko laguntza zerbitzua arautzen duen udal araudiari kalterik egin gabe, bi zerbitzu horiek bateraezinak direla ulertuko da eta aldi baterako egonaldiak irauten duen bitartean etxez etxeko laguntza zerbitzua etenda geratuko dela. Beraz, erabiltzaileak 34. artikuluaaren arabera kalkulaturako ekarpen osoa ordainduko du.

2. Hala ere, etxez etxeko laguntza zerbitzua ematen jarraitzen bada, erabiltzailearen etxean elkarbizitza unitateko beste kideren bat geratzen delako zerbitzu hori jasotzeko baldintzak betetzen dituena, aldi baterako egonaldiako kalkulaturako ekarpen ekonomikoari deskontatuko zaio etxez etxeko laguntza zerbitzuari dagokion gastuaren zati proportzionala. Gastuaren zati proportzional hori izango da aldi baterako egonaldiak irauten duen denboran hartutako etxez etxeko laguntza zerbitzuarengatik ordaindu beharreko zenbatekoa zerbitzu horren hartzaileen kopuruarekin zatituta ateratzen dena.

39. artikulua. Aldi baterako egonaldi zerbitzua luzatzea, irteerako pronostikoa egoitza iraunkor batean sartzea denean.

Aldi baterako zerbitzuko egonaldia luzatzen denean gero egoitza iraunkorreko plaza batera deribatzen, ekarpen ekonomikoa kalkulatzeko, zerbitzu iraunkorretarako ezarritakoa aplikatuko da.

40. artikulua. Uko egiteak.

2005eko apirilaren 21eko 12/2005 Foru Dekretuaren 28. artikulua arautzen duen aldi baterako egonaldiaren zerbitzuaren eskatzaileak edo erabiltzaileak uko egiten badu, zegokien ekarpenaren %50 ordaindu beharko du erabili gabeko egonaldi egunengatik, kasu hauetan:

a) Justifikazioa erabakigarria ez bada eta aurrerapena behar adinakoa ez bada zerbitzua erregulatzen duen araudiaren arabera, gehienez 7 egun ordainduko ditu.

b) Aurrerapena behar adinakoa izan arren justifikazioa erabakigarria ez bada, eta urte naturalaren barruan antzeko beste uko egite bat gertatu bada, gehienez 3 egun ordainduko ditu.

III. TITULUA

SORTZAPENA, ORDAINKETA ETA GARANTIAK

I. KAPITULUA. SORTZAPENA ETA ORDAINKETA

41. artikulua. Sortzapena.

Araudi honetan erregulatutako ekarpen ekonomikoak ordaintzeko obligazioa, 2. artikuluan zehaztutako zerbitzuetako edozein ematen den momentuan sortzen da.

42. artikulua. Ordainketa.

1. Zehazten den entitateari dagokion faktura kobratzeko aurkezten duen momentuan ordaindu beharko dira ekarpen ekonomikoak.

2. Titulu honen III. kapituluan aurreikusitakoaren arabera ordainketaren zati bat geroratzen denean, honela jokatu da:

a) Hilero ordaindu beharreko ekarpen zatia, zerbitzua ematen duen entitateak faktura kobratzeko aurkezten duen momentuan ordainduko da. Zerbitzua ematen duen entitateari ordainduko zaio.

b) Ekarpeneren gainerako zatia, sortutako interesekin batera, zerbitzua amaitzen denean ordainduko da, edo hori baino lehenago, ordaintzera behartuta dagoenak horrela nahi izanez gero, zerbitzua amaitu aurretik ordainaraztea erabakitzen bada. Ordainketa hori Gipuzkoako Foru Aldundiari egingo zaio.

3. Bestalde, 40. artikuluan araututako uko egiteak gertatzen direnean, uko egitea zerbitzuan sartu aurretik gertatzen bada, baina ekarpenen bat ordaindu behar bada, Gipuzkoako Foru Aldundiari ordainduko zaio, ordainketa galdagarria dela erabakitzen duenean.

43. artikulua. Ordaintzera behartutako pertsonak.

1. Ekarpene ekonomikoa ordaintzera behartuta egongo dira, foru dekretu honetan araututako terminoetan, 2. artikuluan aurreikusitako zerbitzuetako bakoitza eskuratzen duten pertsonak.

2. Zerbitzuaren erabiltzaileak adingabeak edo juridikoki ezgaitutako pertsona helduak direnean, horien guraso ahala edo tutoretza edo kuradoretza duten pertsonak egongo dira ordaintzera behartuta.

3. Era berean, 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, 57.6 artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, ekarpen ekonomikoa ordaintzera subsidiarioki behartuta egongo dira erabiltzaileak edo haren ezkontideak, zerbitzuan sartzeko eskaeraren aurreko bost urteetan dohainik egindako ondare eskualdatze baten edo gehiagoren onura lortu duten pertsonak. Ordaintzeko obligazioa dohaintzan hartutako ondasunen baliorainokoa izango da. Balio hori balio katastrala izango da ondasun higiezinak direnean, eta zerbitzua eskatzen den momentuan ondasunak merkatuan duen balioa ondasun higigarriak direnean.

II. KAPITULUA. -EBAZPENA, BERRIKUSPENA ETA EGUNERATZEA

44. artikulua. Ebazpena.

1. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuari dagokio foru dekretu honetan aurreikusitako ekarpen ekonomikoen likidazioa eta aplikazioa.

2. Gizarte Politikako Departamentuak interesatuari edo, hala dagokionean, haren legezko ordezkariari jakinaraziko dio:

- a) Zerbitzuko plazaren kostu osoa.
- b) Ordaindu beharko duen ekarpen ekonomikoa.
- c) Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatuko duen kostu zatia.
- d) Ahalmen ekonomikoa zehazteko konputatutako errenta eta ondarea.
- e) Erabiltzailearen obligazioak.
- f) Ebazpenaren aurka jar litezkeen errekurtsuak.

3. Hasierako ekarpen ekonomikoaren likidazioa 2015eko martxoaren 24ko 7/2015 Foru Dekretuz araututako prozeduraren zati bat da; bestela, 2015eko apirilaren 21eko 12/2015 Foru Dekretuaz arautzen da. Horrenbestez, eskatutako zerbitzuaren onarpena eta ekarpenaren ebazpena ekintza administratibo berean ebatziko dira.

45. artikulua. Komunikatzeko betebeharra.

1. 2. artikuluan zehaztutako zerbitzuetakoren bat hartzen dutenek edo, hala dagokionean, haien legezko ordezkariak, hilabeteko epearen barruan ezagutzera eman beharko dute elkarbizitza unitatean edozein aldaketa gertatzen bada kideen kopuruari, egoera zibilari, diru sarrerei nahiz ondareari (hartutako jaraunspenak edo dohaintzak, higiezinen eskualdatzea,) dagokienez, eta berdin erabiltzaileari esleitutako ekarpen ekonomikoan eragina izan lezakeen bestelako gorabeheraren bat gertatzen bada, aldaketa gertatzen den egunetik kontatuta.

2. Komunikazio horren ondorioz, erabiltzaileari esleitutako ekarpena aldatu ahal izango da, eta aldaketak eragina izango du berrikuspen eskaera egiten den egunaren hurrengo hilaren lehenengo egunetik aurrera, salbu eta aldaketa horrek ekarpen ekonomikoa gehitzea ekartzen badu eta aldaketa sorrarazi duten gorabeherak epe barruan ezagutzera eman ez badira, kasu horretan aldaketa gertatu zen egunaren hurrengo hilaren lehenengotik aurrera izango baititu ondorioak.

3. Gizarte Politikako Departamentuak jakiten badu ekarpen ekonomikoa zehazteko kontuan hartzen den aldaketaren bat gertatu dela elkarbitza unitatearen ahalmen ekonomikoa, eta aldaketa horren berri ez bada eman aurreko paragrafoan aurreikusitako moduan, Departamentuak ofizios berrikusiko du esleitutako ekarpen ekonomikoa, egoera berrira egokitzeko. Ekarpen ekonomikoa berria atzera eraginez aplikatuko da, aldaketa gertatu den egunaren hurrengo hilaren lehenengo egunera arte, eta epealdi horretan metatutako kopuru atzeratuak ordaintzeko obligazioa sorraraziko dio erabiltzaileari.

46. artikulua. Ofizios berrikustea.

1. Gizarte Politikako Departamentuko organo kudeatzaileak urtero berrikusiko ditu erabiltzaileek ordaindu beharreko ekarpen ekonomikoa, errenta eguneratuei egokitzeko.

2. Urtero berrikustez gain, organo kudeatzaileak egoki deritzen berrikuspen guztiak egin ahal izango ditu eta esleitutako ekarpen ekonomikoa aldatzea ebatzi ahal izango du erabiltzaileen ahalmen ekonomikoa aldaketaren bat gertatu dela egiaztatzen duenean.

47. artikulua. Esleitutako ekarpen ekonomikoa aldatzea.

Zerbitzuaren erabiltzaileari esleitutako ekarpen ekonomikoa aldatzeko arrazoi izango dira, ahalmen ekonomikoa aldatzeaz gain, jarraian zehazten diren hauek:

a) Erabiltzailearen mendekotasun gradua aldatzea, mendekotasun egoeran dauden adinekoen egoitza zentroen erabiltzaileak direnean.

b) Zentro batetik beste batera aldatzea, beste mota bateko zerbitzu batera aldatzen denean nahiz mota bereko zerbitzu batera aldatzen denean, zentro bakoitzerako ezarritako gehieneko ekarpena zehazteko modua aldatzen baldin bada.

III. KAPITULUA. -ORDAINKETAREN ZATI BAT GERORATZEA ETA ZORRA AITORTZEA

48. artikulua. Ordainketaren zati bat geroratzea aplikatzea.

1. Erabiltzaileek edo, hala dagokionean, ordaintzera behartuta daudenek frogatzen dutenean ez dutela aldizkako nahikoa sarrera esleitu zaien ekarpen ekonomikoa ordaintzeko, eta nekez diru bihur daitezkeen ondasunak dituztenean, aldez aurretik berariaz eskatuta, ordainketaren zati bat geroratu ahal izango dute.

2. Ordainketaren zati bat geroratu ahal izango da, 2. artikuluan xedatutakoaren arabera, esleitutako ekarpen ekonomikoa zehazteko garaian ondarea kontuan hartzen den egoitza zerbitzuetan.

3. Ordainketaren zati bat geroratzeak ekitaldi bakoitzean indarrean dagoen diruaren legezko interesa sortuko du.

49. artikulua. Geroratu ahal izango diren kopuruak.

Ordaintzera behartuta dauden pertsonen urtero geroratu ahal izango dute ondoko formulatik ateratzen den kopuruaren ordainketa:

Zerbitzuarengatik ordaindu beharreko ekarpen ekonomikoa - (errenta indibiduala - erabilera libreko gutxieneko kopurua).

50. artikulua. Zorra aitortzea.

1. Aurreko artikuluetan aurreikusitako ordainketa geroratzearen onura lortu nahi dutenek, Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko zorra aitortzeko dokumentu bat sinatu beharko dute, egun bakoitzeko geroratuko den zenbatekoagatik, hau da, esleitu zaien ekarpen ekonomikoaren eta egun bakoitzeko ordaindu beharreko zenbatekoaren arteko diferentziagatik. Horretarako, ordaintzera behartuta dauden pertsonen, ordaintzeko konpromiso bat formalizatuko dute Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuarekin, zerbitzua adjudikatu dien ebazpen administratiboan aurreikusitako terminoen arabera.

2. Ordainketa geroratzeko eskaera eta zorra aitortzeko dokumentuaren sinadura, zentroan sartu aurretik nahiz sartu ondoren formalizatu ahal izango dira, aurreko artikuluetan jasotako zirkunstantziak betetzen baldin badira.

3. Zor aitortpena eta ondoriozko ordaintzeko konpromisoa sinatzeak esan nahiko du, harik eta zorra kitatu arte, ezingo dela ondasun propioarik besterendu ezta eskubide ekonomikoei edo ondare eskubideei uko egin ere, alde zurratik berariazko baimena ematen ez badu Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak. Obligazio hori ez betetzeak ekarriko du ordaintzeko dagoen kopuru osoa exijitzea, eta zor aitortpenetik eratorritako ondorioak azkentzea.

4. Gizarte Politikako Departamentuak urtero bidaliko die ordaintzera behartutako pertsoneri, informazio gisa, zorra aitortzeko dokumentu eguneratua, egun horretan zor duten kopuruarekin, printzipala eta sortutako interesak bereizita.

51. artikulua. Ordainketa geroratzean garantia eratzea.

1. Aitortutako zorraren edo sor litekeenaren ordainketa geroratzea garantizatzeko, Gizarte Politikako Departamentuak bere aldeko abal solidarioa kreditu erakunde batean eratzea exijituko du.

2. Abal konpromiso hori lortzea ezinezkoa dela justifikatzen bada, horretarako egindako gestioak egiaztatuz, bi finantza entitate desberdinen ziurtagiri negatiboekin dokumentatuta, ondasun higiezin edo higigarrien gaineko hipoteka eskaini beharko du eskatzaileak garantia gisa. Ordaintzera behartuta dagoenak beste ondasun higiezin batzuk baldin baditu, ohiko etxebizitzaz gain, ohiko etxebizitza izango da azkeneko hipotekatuko den ondasuna. Eta karga hori inola ere ez da ezarriko etxebizitza baten gainean, etxebizitza hori elkarbizitza unitateko kideen edo aurreko edo ondorengo ahaideen ohiko bizilekua bada.

3. Bi zerbitzu urtetan sor litekeen zorra estali beharko du garantiak. Epealdi hori igaro baino hiru hilabete lehenago, garantia emendatu beharko da hasierako kopuru berean. Eta berdin egingo da behar den aldi guztietan, garantiak beti estal dezan ordura arte sortutako zorra.

4. Garantiak ekonomikoki eta juridikoki aski diren ala ez, geroratzea tramitatzeko eskumena duen organoak baloratuko du eta balorazio horrek zailtasun bereziren bat duenean, Ogasun eta Finantza Departamentuari txostena eskatu ahal izango zaio.

52. artikulua. Zorraren jakinarazpena.

Zorra aitortu denean, zerbitzua emateari uzten zaionean, ordaintzeko geratzen den zorraren saldoa jakinaraziko du Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak, saldo horren zordunari zuzendutako ebazpenaren bidez –erabiltzailearen heriotza izan ez bada zerbitzua amaitzeko arrazoia–, edo jaraunsle edo oinordeko posibleei zuzendutako ebazpenaren bidez; eta ebazpen horretan zehaztuko dira zorraren printzipala, sortutako interesak eta lehen ordaindu gabe utzitako ordainagiriak edo oraindik ordaintzeko daudenak, horrelakorik baldin badago, ebazpena jaso eta hurrengo 60 egun naturaleko epean zorra kita dezaten.

53. artikulua. Exekuzio aldiko diru bilketa.

1. Borondatezko aldia amaitu eta hurrengo egunean hasiko da exekuzio aldia.

2. Borondatezko aldia amaitua, Gizarte Politikako Departamentuak Ogasun eta Finantza Departamentuari helaraziko dizkio borondatezko aldian ordaindu ez diren zenbatekoak, departamentu horrek premiamendu prozeduraren bidetik kobra ditzan, ordaintzera behartutako pertsonen ondarearen kontra.

3. Exekuzio aldiaren hasierak berandutza interesen galdagarritasuna erabakiko du eta, halaber, exekuzio aldiko errekaruena eta, horrelakorik egonez gero, premiamendu prozeduraren kostuena.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

Foru dekretu hau aplikatuko zaie, eguneko arreta zerbitzuen erabiltzaile guztiei, desgaitasuna edo buruko gaixotasuna dutenentzako egoitza zerbitzuen erabiltzaileei eta foru dekretua indarrean sartzetik aurrera mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako egoitza zerbitzuetan sartzeko egiten diren eskaera berri guztiei.

Hala ere, lehenagoko araudiaren babesean zehaztutako ekarpen ekonomikoa duten adineko egoitza zerbitzuaren erabiltzaileek, foru dekretu honetan ezarritakoa aplikatzea nahi badute, aukera hori egikaritu ahal izango dute. Ekarpen ekonomikoa aldatzeko ebazpenak ondorioak izango ditu eskaera egiten den egunaren hurrengo hilaren lehenengo egunetik aurrera.

47. artikuluan esleitutako ekarpen ekonomikoa aldatzeko aurreikusitako zirkunstantziaren bat gertatzen bada, foru dekretu honetan xedatutakoaren arabera zehaztuko da ekarpen ekonomikoa berria.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA⁶

2. artikuluan adierazitako egoitza zerbitzuen erabiltzaileek, alegia, inolako baliabide ekonomikorik ez dutenek eta erabiltzaile izateagatik 2010eko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak araututako Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta jaso ezin dutenek aukera izango dute diru laguntza bat jasotzeko hiler, eskaera egin ondoren, 1986ko maiatzaren 26ko 129/1986 Dekretuak araututako Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Ongizateko Funtzaren pentsioaren parekoa

XEDAPEN IRAGANKORRA

Foru dekretu honen 3. artikulua 1. apartatuaren ondorioetarako, 2015. urterako 2. artikuluan aipatutako zerbitzuen gehieneko ekarpenak II. eranskinean jasotako zenbatekoetan zehazten dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

2015eko abuztuaren batetik aurrera, indarrik gabe geratzen dira arau hauek eta foru dekretu honen mailako edo maila baxuagoko arauak baldin eta hark dioena kontrajartzen badute:

— apirilaren 30eko 20/2002 Foru Dekretuak, Gipuzkoako adineko pertsona ezinduentzako lekuak eskatu eta emateko arauak ematen dituenak, foru dekretu honetako xedapen gehigarrian xedatutakoa izan ezik, zeinak indarrean jarraituko baitu.

— ekainaren 15eko 56/1999 Foru Dekretua, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintza Departamentuaren adineko pertsonentzako zentroetako prezio publikoak ezartzekoa, foru dekretu honetan ezarritakoari aurka egiten dion guztian, V. kapituluaren ezarritakoa izan ezik.

2015eko urriaren batetik aurrera, indarrik gabe geratzen dira arau hauek eta foru dekretu honen mailako edo maila baxuagoko arauak baldin eta hark dioena kontrajartzen badute:

⁶ Bigarren xedapen gehigarria arau honek eranstean du: 2016ko maiatzaren 24ko 12/2016 Foru Dekretua, zeinaren bidez aldatzen baita 2015eko ekainaren 2ko 15/2015 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasuna dutenentzako arreta zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoen araubidea arautzekoa.

— urriaren 26ko 30/2010 Foru Dekretua, baliabide sozio-sanitarioen sareko zerbitzuen erabiltzaileen diru ekarpenak arautzen dituena.

— abenduaren 30eko 758/2002 Foru Agindua, Sendian Programarekin loturiko zerbitzu eta prestazioen erabiltzaileen zenbait prezio, baremo ekonomiko eta ekarpen onesten dituena.

— apirilaren 29ko 29/2008 Foru Dekretuko, egoitza arretako eta eguneko arretako zerbitzuen onuradunek aste bukaeretan eta jaiegunetan egin beharreko ekarpenak arautzen ditueneko, 3. artikulua.

2016ko urtarrilaren batetik aurrera, indarrik gabe geratzen dira araua hauek eta foru dekretu honen mailako edo maila baxuagoko arauak baldin eta hark dioena kontrajartzen badute:

— uztailaren 27ko 56/2001 Foru Dekretua, Gizartekintza Departamentuaren minusbaliatuen egoitzetako prezio publikoak onartu zituen ekainaren 3ko 41/1997 Foru Dekretuan xedatutakoari beste prezio publiko bat eta onuradunek ordaindu beharreko zenbatekoa eransten diona.

— ekainaren 3ko 41/1997 Foru Dekretua, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintzak dituen minusbaliatuen egoitzetako prezio publikoak onartzen dituena.

— urtarrilaren 30eko 4/1996 Foru Dekretua, Uliazpi Fundazioa Erakunde Autonomoko asistentzia-zentroen prezio publikoak ezartzen dituena (6. artikulua eta 5. artikuluko lehenengo paragrafoa izan ezik).

AMAIERAKO XEDAPENAK

Lehenengoa. Garapena.

Ahalmena ematen zaio Gizarte Politikako Departamentuko titularrari, foru dekretu hau garatzeko, exekutatzeko eta aplikatzeko bidezkoak edo beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

Bigarrena. Inprimakiak.

Gizarte Politikako Departamentuak eredu normalizatuak onartuko ditu, foru dekretu honetan xedatutakoa kudeatzeko.

Hirugarrena. Indarrean jartzea.

2015eko abuztuaren 1ean:

- Mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako egoitza zentroak.
- Mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako eguneko arreta zentroak.

2015eko urriaren 1ean:

- Egoitza unitate soziosanitarioak.
- Buruko gaixotasuna dutenentzako egoitza zentroak.
- Buruko gaixotasuna dutenentzako errehabilitazio psicosozialeko zentroak.
- Mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako aldi baterako egonaldiak.

2016ko urtarrilaren 1ean:

- Desgaitasuna dutenentzako egoitza zentroak.
- Desgaitasuna dutenentzako eguneko arreta zentroak.
- Desgaitasuna edo buruko gaixotasuna dutenentzako aldi baterako egonaldiak.

I⁷. ERANSKINA. ERABILERA LIBREKO KOPURUAK
(Indarrean dagoen 14 ordainketako urteko OAEAParen portzentajearen adierazita)

<i>Zerbitzu mota</i>	<i>Erabilera librekoa</i>
Adinekoentzako egoitza zentroak	OAEAParen %29
Adinekoentzako eguneko zentroak	OAEAParen %74
Desgaitasuna dutenentzako egoitza zentroak	OAEAParen %44
Desgaitasuna dutenentzako eguneko zentroak	OAEAParen %74
Desgaitasuna dutenentzako egoitza zentroak eta etxebizitzak (mantenurik gabe)	OAEAParen %62
Buruko gaixotasuna dutenentzako egoitza zentroak	OAEAParen %50
Buruko gaixotasuna dutenentzako egoitza zentroak eta etxebizitzak (mantenurik gabe)	OAEAParen %62
Errehabilitazio psikosozialeko zentroak	OAEAParen %74
Egoitza unitate soziosanitarioak	OAEAParen %29

⁷ I. eranskina, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, arau honek aldatu du: urtarrilaren 24ko 2/2017 Foru Dekretuak, aldatzen duenak 2015eko ekainaren 2ko 15/2015 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasuna dutenentzako arreta zentroyen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoaren araubidea arautzekoa (2017ko otsailaren 7ko GAO).

II. ERANSKINA⁸

GEHIENEO EKARPEN EKONOMIKOEN ZENBATEKOA	
ADINEKOENTZAKO ZERBITZUAK	
1. zenbatekoa. Mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako egoitza zentroak.	
1.1. zenbatekoa. Unitate psikogeriatricoa.	68,53 €
1.2. zenbatekoa. MBBn 3. eta 2. graduan baloratutako pertsonak.	68,53 €
1.3. zenbatekoa. MBBn 1. graduan baloratutako pertsonak.	54,80 €
1.4. zenbatekoa. Autonomoak edo mendekotasun egoera baloratu gabekoak.	45,00 €
2. zenbatekoa. Mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako eguneko zentroak.	
2.1. zenbatekoa. Laneguneko zerbitzua.	16,50 €
2.2. zenbatekoa. Jaieguneko edo asteburuko zerbitzua.	16,50 €

BURUKO GAIXOTASUNA DUTENENTZAKO ZERBITZUAK	
3. zenbatekoa. Buruko gaixotasuna dutenentzako etxebizitzak eta egoitza zentroak.	
3.1. zenbatekoa. 1. taldea. Laguntzadun etxebizitzak.	14,67 €
3.2. zenbatekoa. 2. taldea. Egoitza unitateak.	20,24 €
4. zenbatekoa. Errehabilitazio psikosozialeko eguneko zentroak.	
4.1. zenbatekoa. Errehabilitazio psikosozialeko eguneko zentroak.	8,78 €

EGOITZA UNITATE SOZIOSANITARIOAK	
5. zenbatekoa. Egoitza unitate soziosanitarioak.	
5.1. zenbatekoa. Egoitza unitate soziosanitarioak.	34,19 €

DESGAITASUNA DUTENENTZAKO ZERBITZUAK	
6. zenbatekoa. Desgaitasuna dutenentzako egoitzak eta etxebizitzak.	
6.1. zenbatekoa. Laguntza zabaleko eta orokorreko egoitzak eta etxebizitzak.	56,79 €

⁸ Eranskin hau, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, honako arau honek aldatu du: abenduaren 19ko 26/2017 Foru Dekretuak, zerbitzuen erabiltzaileen gehieneko ekarpen ekonomikoak onartzen dituenak eta aldatzen duenak ekainaren 2ko 15/2015 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasuna dutenentzako arreta zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoaren araubidea arautzekoa (2017ko abenduaren 29ko GAO).

6.2. zenbatekoa. Laguntza zabaleko etxebizitzak.	45,70 €
6.3. zenbatekoa. Laguntza mugatuko etxebizitzak.	36,14 €
6.4. zenbatekoa. Aldizkako laguntzako etxebizitzak.	25,06 €
6.5. zenbatekoa. Egoitza zerbitzua duten heziketa bereziko zentroak.	25,06 €
7. zenbatekoa. Desgaitasuna dutenentzako eguneko zentroak.	
7.1. zenbatekoa. Laguntza zabaleko eta orokorreko eguneko zentroak.	10,85 €
7.2. zenbatekoa. Laguntza mugatuko eta zabaleko eguneko zentroak.	8,78 €